

**KARMEL ALDIZKARIKO IDAZLEEN
AZKEN LIBURUAK ETA SARIA:
Luis Baraiazarra, Ana Urkiza, Patxi Juaristi**

Karmel aldizkariko idazleak azken hiletan fin ibili dira liburuak idazten eta argitaratzen edo ta sariak lortzen. Oraingoan batez ere hiru nahi nituzke aipatu: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza eta Patxi Juaristi.


— 1 —

2000ko abenduaren 19an izan zen Luisek egindako liburua-
ren aurkezpena: *Jon Lopategi bertsozko mezularia*, Andoain,
2000, 420 or. Liburua aurkezten agertzen dira lehelengo bost
orrialde, Paulo Iztuetaren lumatik sortuak, gero Luisen hitzau-
rea eta 17 kapitulu, eta amaitzeko Lopategiren bertso hauta-
tuak (18. kapitulua) eta azken gogoeta (19. kapitulua).

Zer aurkituko dugu liburu honetan? Abenduaren 19ko aur-
kezpenean entzun ziren liburua-aren historia, zergatia eta ma-
mia.

Atseginez irakurtzen den Jon Lopategiren bertsoz jositako
biografia da. Liburua bizkaieraz idatzia dago, baina edonongo
euskaldunek erraz ulertzeko eran idatzia

Abiada bizi-bizian doaz gertaerak eta gure historia hurbile-
ko gauza eta pertsonaia garrantzitsuak denborak irentsi eta be-



tiko ahaztuak izateko arriskuan dira. Gauza baliotsuak iraganaren atzaparretatik askatzea izan behar luke gure ahaleginak. Liburu honetan hori zen gure nahia: bertsolari handi bat, bertsolaritzaren historia zatitxo bat joandako denboraren ilunpetatik argitara atera eta irakurleei eskaintzea.

Liburuak izenburu hau du: “Jon Lopategi, bertsozko mezu-laria”. Luisek berak esango digu zergaitik: “Idazteari ekiterakotan, haren dohain azpimarragarri baten bila hasi nintzen neure baitan eta horixe bururatu zitzaidan. Bertsolari handiak zerbaitegatik miresten dira. Batzuk, poesiarako duten joeragatik, beste batzuk irribarre eragiteko duten graziagatik, haiek dialektikarako zorroztasun eta ziriagatik, hauek arrazoi indartsuengatik... Azkenez, beste batzuk ez dugu ziur jakiten zergatik, baina miretsi egiten ditugu. Jon Lopategi gogoko bertsolaria nuen eta miretsia... Gero, pentsatzen hasita, bertso hutsalik ne-

kez botatzen zuela ohartu nintzen; goitik behera ondo taxutuak eta intentziaz eta mezu abertzalez betekoak ziren haren bertsoak... Hortik sortu zen izenburua”.


Zer dakar gehiago? Hasieran flash baten antzera agertzen dugu haren bertsolari-bizitza eta Bizkaiko bertsolaritza bera. Ia ezerezetik nola etorri den indartuz; errauspeko txingar txikitik nola piztu den sugarra Bizkaian. “Urretxindorra” eta enbeitatarak, bertsolaritzan eragin handia izan duten pertsona eta erakundeak: Euskaltzaindia, Alfonso Irigoien... Jonen aurreko belaunaldikoak behin eta berriro aipatzen dira hasierako kapituluetan, garairik zailenetan eta Bizkaian ia ezer ez zegoenean, bertsolaritzari eusten eta ondorengo belaunaldietara helarazten saiatu zirelako.

Jonen bertsolari-bizitzako emaitzarik onenak beraren bertsoak, bertsoen bidez herriari ematen jakin duen mezua izan litezke. Hori liburuan zehar eta azken ataleko bertso hautatuetan biltzen da, oso laburturik bada ere; baina uztarik oparoenak, beharbada, bere ikasleengan eskolarik eskola erein duen hazitik etorria izan dela esango nuke. Lan handi hori hor dago, begi bistakoa eta eder-ederra da. Jonek eskola bat sortu du eta bera atze samarrean edo isil antzean gelditu dadinean ere, haren bertsoerak bizi-bizi iraungo du bere ikasleen ahotan. Baratzea lantzen izeneko kapituluan biltzen dugu hau.

Bai, eskerrak Jon Lopategiri; baina batez ere Luis Baraiazarrari liburu honen bidez begi eta bihotz aurrean jarri digulako, ez bakarrik Lopategiren mezuz beteriko bertso-bizitza, baita Euskal Herriko eta batez ere Bizkaiko bertso mundua agerian ezarri digulako ere.

— 2 —

2000ko urtearen amaierarantz agertu zen Ana Urkizaren beste liburu polit bat, baina oraingoan poesiaz hornitutako liburua, eta aurkezpena azken egun honetan izan da: 2001eko otsailaren 15ean.



Ana Urkiza, *Gela illunetik*.
Alegia, 2000, 78 or.
(Egan & Hiria)

Nondik nora doan liburua Anak berak diñosku, irudimenez jantzirik: "Haitzuloko mitoak dio, ezagutzarik edo esperientziarik ez duen pertsona bat hormara begira jarriz gero eta horma horretara irudi ezberdinak proiektatuz gero (demagun, su aurrean dantzan dabilen norbaiten silueta), esperientzia edo ezagupenik gabeko izaki horren sormen ahalmena sustatu egiten dela. Izaki horren sormena, balitekeela, esperientzia dugunok ezagutzen dugun errealitatetik at kokatzea; balitekeela, irudimenak, usteak edo beldurrak eragindako errealitate berri bat asmatzea...

Imajina dezagun orain, ezagutza edo esperientzia (eskarmentua) duen pertsona bat, idazle bat, goizaldean, gela ilun batean, leihotik sartzen zaion argia edo flexo txiki bat lagun duela. Ixiltasunak gogoeta egitera gonbidatzen du, birpasatze-

ra, esperientziak hausnartzera, egindakoak eta egin gabe utzitako birbazkatzera, bere burua aurkitzera azken finean.

Bada, idazle hori ni neu naizela esan nezake. Goizaldeko orduetan, leiho aldamenean jarri eta aurreko egunak eskaini dizkidan errealitate puskak edo flashak hausnartzuz.

Gela ilunetik, argazki instantaneoz betetako poema liburua da. Flashak dira bertan kontatzen direnak. Flashak bertan sentitutakoak. Poesia, azken finean, sentsazioen deskribapena baita.

Sentsaziotik sentsaziora, ordea, flash batetik bestera, denbora dago tarte, distantzia luzeak daude, esperientzia ezberdinak, sentipen ugari... Poema liburuaren lehen atalean, idazlea edo bidaztia, bidea eginez doa, bere ildoan, denbora ulertuz, gauez oroituz, kaletik hartutakoak papereratuz, bere burua nabasian sentituz..."

Bigarren atalean, bidazti horrek argi bat dakus; leiho irekitik itxaropen argia antzemango du, hitzean edo poesian aurkitu du bere ihesa, baita maitasunean, eta azkenean, ubeldutako sentsazioak edo esperientziak ditu gomuta.



Gela ilunetik, bizitza sentsazioetan edo bulkadetan ulertzen eta gozaten duen idazle baten ibilbidea da. Poema bakoitza bulkada bat da, poemarioa bulkada aro bat; eta iragana, esperientziaren oinarri. Poema bakoitzari orri bat dagokio, poema bakoitzari geltoki bat; poema bakoitza zalantza bat da eta poema bakoitza irtenbide bat.

Gela ilunetik, argira nahi duen poema liburua da. Gauzez idatzi ondoren, idazleak hurrengo egunaren argia dastatu nahi izaten duen bezala. Bere mundutik irten eta bizi dela baieztatzea.

Anak berak esango deusku:

“Ibilbide honetan, *denbora, denboraren joan etengabea, bakardadea, maitasun eza, espazioaren eskuraezintasuna, heriotza eta norabiderik eza* izan ditut kezka. Arriskua eta segurtasunik ezaren irudi ostera, *kalea, gaua eta abulia* erabili ditut. Arrisku eta ezinegona eta artega sortu didaten gai hauen aurrean, *babesa nire gelan, kurtina atzetik zelatean eta nire baitangoarekin hitz egitean* aurkitu dut.

Ibilbide luze honetan bidaiialagun izan ditudan elementu konstanteak *itsasoa, zerua, eguzkia, ilargia, izarrak, gaua eta eguna* izan dira. Garrantzitsuena, denetan, noski *itsasoa. itsasoa*, kezka eta irtenbide ororen iturri gisa.

Poesia bera bezala.

Poesia da hitza,
poesia ahaztura”.

Liburuaren sarreran agertzen den iritzia kontuan hartzekoa da, Ixar Rozasena da:

“Gela Ilunetik lanaren poemask arnas sakonekoak diren arren, unean uneko inpresioak ere badakazkigu. Urkizak inpresioak azalten dizkigu, laburrak, segundo bakar batean adierazi eta ondoren geuk irensten ditugunak. Arimaren egoera zehatz batean egiten den hausnarketatik datoz inpresiook eta pentsatzen jartzera gonbidatuko gaituzte ondoren.

Poesia, arimaren eta hitzaren arteko dohaien berdintasuna zela zioen Marina Tsvietieva idazleak. Ana Urkizak arimaren dohaia –barrualdean bilatu eta xaxatzearena– baduela ikusiko duzu irakurle, eta aldi berean, hitzetan barrena erraz garamatzala, ulergarri ez dena ulergarriago eginez eta ondorioz geuregana gerturatuz”.

— 3 —

2000ko 15ean banatu ziren BBK-ko literatur Sariak. Eta han hartu zuen Patxi Juaristi Larrinagak 2000. urteko Euskaltzaindiaren Mikel Zarate saria “Euskal Herria globalizazioaren aurrean” saiakeragatik. Eta esan beharra daukagu, saio hau liburu baten agertuko dela datorren apirilean edo maiatzean.

Patxi Juaristi markiñarra, Karmel aldizkariko idazle fina du; soziologian doktorea da (1995), Euskal Herrian ohituraz ezagutu diren ondasunekiko harremanei buruzko tesi-lana aurkeztu ondoren. Euskal kultura, euskaldunen balore, euskara eta, orokorrean, hizkuntzei buruzko zenbait ikerketa, artikulu eta liburu bat (Basterretxea, I. Aldekoa-Otalora, A., Gorostiaga,



I., Juaristi, P.: *Euskal Alfabetatzearen Historia Zenbait Sortzaileren ahotan 1960-1990*. Labayru, Bilbo, 1997.) argitaratu ditu. 1993. urtetik Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean.

Labur-labur bada ere orain “Euskal Herria globalizazioaren aurrean” lanaren mamia eskaini nahi dizuegu, lanaren aurkezpenean entzundakotik.

“Hitzetik hortzera eta ahotik belarrira bolo-bolo dabilen kontzeptua bada ere, ez dago globalizazioaren emaitza eta eraginei buruzko adostasunik”, dinosku Patxik berak. Batzuentzat, globalizazioak ondorio ekonomiko, politiko eta kultural ezkorrak ekarriko dizkigu. Teknologia berriek sortzen ari diren mugarik gabeko mundua gizaki zein gizarteen, bereziki estaturik gabeko herrialdeen, kaltegarri bihurtuko da. Beste batzuentzat, aldiz, globalizazioak bizimodua erraztu, gizarte zein gizakion bizi-kalitatea hobetu eta demokrazia hobeagoak ekarriko ditu; baita herri eta hizkuntza gutxiagotuen egoeraren hobetzea ere.

Ikuspuntu kontrajarri hauen aldeko eta aurkakoen argudio eta arrazoiak zehaztasunez aurkezten ditugu liburu honetan, Euskal Herriak aurrean dituen erronka eta aukerak ezagutarazteko helburuarekin. Horretarako euskal gizartean eragina duten zenbait kanpo (demografiak, ekonomiak eta teknologiek) eta barne faktore (politika, kultura eta baloreak) ikertu, eta datorkigun egoera berriarentzako behar bezala prestatu egoteko hartu beharko zenbait aholku eta erabakiren inguruko gogoeta eskaintzen dugu.

— 4 —

Eta Karmel aldizkariko idazleen azken emaitzak osotzeko, beste aurkezpen baten berri eman beharra daukagu: Julen Urkizak iaz aurkeztu zuen liburu mardul bat: *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*, Markina-Xemein, 1999, 1735 or. (Karmel Sorta, 11).

Baina orain, 2001eko otsailaren 6an beste aurkezpen bat izan zuen, hau da, lan horrek edizio elektronikoa izan du, interneten sartua izan da, eta hain zuzen ere orren aurkezpena izan zen. Euskal bertso eta olerki munduko zaleentzat eta batez ere ikertzaileentzat laguntza ederra eta egokia.

Julen Urkiza